



Ugartetxeak nahi erara irudikatu du Donostia. Palmondo, tsunami eta marrazoak ekarri ditu hirira. ALFONSO MARTIN (NO COLOR)



Erakusketa » Pablo Ugartetxea margolari bilbotarrak surf giro umoretsuan murgildu du hiria Groseko No Color galerian.

NEREA LIZARRALDE

Lau urte besterik ez darama surfean, baina txikitatik, margotzen hasi zenean, itsasoa eta arkitektura izan dira bere gairik kuttunenak. Lekeitioko portura joan ohi zen bertako etxeak eta portua bera margotzera. Arde Ederretako ikasketak egin zituen harrez gero, Bilbon, Bartzelona, Los Angeles edo Kortzegan egin ditu hainbat erakusketa... Saint Tropez-en egin zuen erakusketa duela hiru urte eta Jack Nicholson eta Brigitte Bardotekin izan zen erakustaretoa.

Surfa egiten hasi zenetik hasi dira olatuak agertzen bere kuadroetan: «Donostiak XIX. mendeko arkitektura ederra du, baita denborale indartsuak. Oso erakarga-

«Nire aitonak eman zion Aquariumi dohaintzan balearen hezurdura»

rria zen niretzat hemen erakusketak bat egitea». Sancho Rodriguezekin, Surf Film Festibaleko zuzendariarekin, aspaldi zuen zer bait egiteko idea buruan: «Jaialdiaren gaietako bat surfak hirigintzan duen eragina izango zela esan zidan. Balin esaterako, hasieran ez zegoen ezer, baina surf larrigehiago joaten hasi zirenean erakin mordoa egiten hasi ziren. Etxe orratzik ez, baina ezer ez zegoen eremuetan bat batean urbanizazioak sortu dira. Kirol batek hirigintza eta naturan duen eragina aztertuko dute eta nik horren inguruan egin dut erakusketa. Surfak hirigintza eragina du, eta alderantziz, olatuak hiria suntsitu dezakete. Naturaren indarrak gauzak bere tokian uzten

ditu berriz ere». Grosek izandako berpizkundeak harrituta utzi du Ugartetxea: «Kaliforniako surf hiriari ekartzen dizkit gogora, beti ere Donostiako nortasuna galdu gabe. Surf giroak ingurune osoa ziprztindu du eta batzuetan Venice Beachen nagoela uste dut».

Donostiarekin lotura sendoa du bilbotarrak eta Aquariumaren ikurra dena bere aitonak ekarri zuen hirira: «Nire aitonak, Pablo Ugartetxeak, buzo enpresa bat zuen 30. hamarkadan eta dragatze lanetan ibili zen Lekeition. Donostia edo Biarritz bezala, baleazaleen portua zen hura. Itsas hondoa bale hezur mordoa zegoen eta bale bat egin zitekeela pentsatu zuen nire aitonak. Donostiako Aquariumi

eman zion dohaintza balearen hezurdura. Lekeitioko etxean saihets bat daukagu gordeta oraindik. Aquarium berriztatu zutenetik ez naiz bertan egon, lehen behintzat nire aitonaren dohaintza zela jartzen zuen eta txikitan poz handia ematen zidan hori irakurtzea».

Swell Town olatu hiria da eta hala irudikatu du Donostia. Irudimena da, halere erakusketako protagonista, eta alkate dirudun eta ahalguztidun baten paperean sartu dela dirudi, hiria hankak gora uzteko. 1965eko denboraleak txundituta utzi zuen umetan eta erakusketa honek ere hondamendi edo apokalipsi giroa dakar: Urumean sartzen eta Maria Cristina

hotela irensten ari den tsunamia, marrazoz jositako Kontxako badia....*Sanse Boulevard* lana asko gustatzen zaio artistari. Los Angeleseko Sunset Boulevard-ekin egin du hitz jokoa. Bulebarra palmeraz bete du, baita Hollywoodeko Ospearen pasealekuko izarrez ere.

Beste kuadro batean, *Agipi* ize-neko olatua irudikatu du: «Donostiakoa da olatua, Kantauriko handiena. Surfeatzeko oso zaila da, erraldoia. Gutxitan sortzen da. Duela biurte kristoren olatuak sortuzirenean eta Ibon Amatriain ibili zen surfean. Nire lagun batek ateratako argazkiak erabili ditut kuadro hau egiteko. Bertan ikusten den tsunamia benetakoa da, beraz. Urgulleko *Jesusen Bihotza* Kaliforniako Surfer-aren omenezko estatua erangatik ordezkatu dut gainera».

» 'SWELL TOWN'

■ **Noiz.** Uztailean 9a arte.
■ **Non.** No Color galeria (Kolon pasealekua, 37).

anaitasuna
EKITALDI POLITIKOA
bihar 17:30

denok
IRUÑERA

aldaketa
POLITIKO ETA SOZIALAREN ALDE

bozkatu
www.iniciativainternacionalista.org

iniciativa
INTERNACIONALISTA

gaur . **DONOSTIA** Ekitaldia 21:00 Konstituzio enparantzan

- **GASTEIZ** Erdialdetik eskuorri banaketa + Manifestaldia 20:30 Andra Mari Zuritik
- **ELIZONDO** Ekitaldia 20:00 Herriko plazan • **ARRIGORRIAGA** Ekitaldia 20:00 Kultur Etxean
- **SODUPE** Ekitaldia 20:00 plazan • **USURBIL** Kafe-bidea 22:00 Irazu kalean
- **LEZO** Propaganda banaketa 20:00 plazan • **IRUN** Kontzentrazioa 19:00 Zabaltza plazan
- **ERANDIO** Ekitaldia • **ABUSU** Afaria • **BAKIO** Afaria • **OLABEAGA** Afaria
- **SANTUTXU** Afaria • **DEUSTU** Afaria • **URIBARRI** Afaria • **MARKINA** Luntxa
- **IRALA** Afaria • **ABADIÑO** Afaria • **ZORROZA** Afaria • **LEZAMA** Parrillada

bihar • **IRUÑEA** Ekitaldia 17:30 Anaitasun

- **OIARTZUN** Propaganda banaketa 18:30 plazan • **USANSOLO** Triki-poteoa goizean zehar
- **OTXARKOAGA** luntxa

etzi

- **DONOSTIA** Propaganda banaketa Alde Zaharran • **ATAUN** Mendi irteera 11:00 Zeharaiatik-San Martinera • **TUTERA** Ekitaldia 13:00 San Jaime plazan • **LASARTE** Ekitaldia 12:00 Okendo plazan

SPOT ELEKTORALAK

ekainak 1 astelehena 9:00 ETB1	ekainak 2 asteartea 10:30 ETB 2	ekainak 4 osteguna 10:30 ETB 2
---	--	---